

# 8

## Esku-trebea zerbitzua

Nola jokatu ezbeharra gertatuz gero?

Estaldura hau kontratatuta badaukazu, Lagun Arok aditu-sare bat jarriko du zure eskura, eta aditu horiek zure etxera joango dira zure etxeko behar hauei erantzuteko:



- Gortinak, koadroak, arropa esekitzekoak, bainugelako osagarriak, ispiluak, kakotegiak eta armairu-barrak esekitzea.
- Dutxa-telefonoaren euskarria jarri eta konexioa egitea, apal solteak, apalategiak eta, instalazio elektrikoak aldatu behar izan gabe, termofluidoak jartzea eta akaberako pletinak, bi zoru desberdinen arteko juntura-estalkiak eta paretaren izkinako babesgarria jartzea.
- Leihoak isolatzea: beiraren eta markoaren artean burleta jartzea eta beira silikonarekin finkatzea.
- Mekanismorik gabeko pertsiana biribilgarriak eta kutxan ezkutatu gabekoak konpondu edo jartzea..
- Barruko zurezko ateetan pieza hauek aldatu edo jartzea: heldulekuak, maratilak, eskulekuak, malgukiak eta kisketa txikiak.

